

IV. MUko Surf Topaketako txapelduna MIKEL ELIZALDE izan da

2013/11/27

Azaroaren 23an ospatu zen topaketa Zarautzen Surf Eskolako kideen laguntzaz. 10 lagun aritu ziren lagunarteko norgehiagokan giro onean. Txapelduna bigarren urtez jarraian Mikel Elizalde izan da, maila ona erakutsiz. Bigarren sailkatua Koldo Uria izan zen eta hirugarrenean Jon Sampedro eta Andoni Alonsok berdindu zuten.

Sari eta opari ezberdinekin joan ziren partaide guztiak eta orain Apirilean jokatuko den Uhaina Classic Frantziako unibertsitatearteko Surf txapelketarako prestatzen hasi beharko dute MUko ikasleek.

Eskerrik asko lagunak!!



Mikel Elizalde iazko Uhaina Classic txapelketan